

KOOPERATIBEN ATE IREKIEI BURUZKO KONGRESUA

Kooperatiba Zuzenbidearen Nazioarteko Elkarteak eta Zuzenbidearen Euskal Akademiak Kongresu bat antolatu zuten Deustuko Unibertsitatean azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean. Kongresuaren leloa "Atxikimendu askea eta irekiaren printzipioa. Printzipioaren aplikaziotik sor daitezkeen ondorio juridiko eta ekonomikoak" izan zen.

Kongresuaren lehen egunean Javier Divar Garteiz-aurrecoa jaunak nabarmendu zuenez, ate irekien printzipioa oso garrantzitsua da kooperatibetan, kooperatiba batean sartu nahi duenari ezin dakiokela bereizkeriarik egin. Horiek horrela, kooperatiban sartzeko aukera baldintzatuta dago kooperatibaren beharrezanetara; hortaz, eskatzaileak ez dauka kooperatiban sartzeko eskubidea ezpada horretara sartzeko itxaropen edo aukera bat. Jarraian, Alejandro Martínez Charterina jaunak printzipioa aztertu zuen ikuspegi historikotik eta doktrinaletik; berak nabarmendu zuenez, hasiera-hasieratik kooperatibetan sartzeko aukera baldintzatuta egon izan da. Hirugarrenik, Eba Gaminde Egia andereak bazkideen alta aztertu zuen ikuspegi juridikotik, bai Estatuko 27/1999 Legean bai euskal 4/1993 Legean. Hurrenik, Carlos Vargas Vasserot jaunak bazkideen bajak dakartzan zailtasunak aipatu zituen. Kontuan hartu behar dugu kooperatibaren iraupena kolokan egon daitekeela bazkideari bere ekarpenak itzuliz gero. Horrez gain, bazkidea kooperatibatik botatzeko aukera ere jorratu zuen. Amaitzeko, Emilio Mauleón jaunak eta Juanabel Genovart andereak kooperatibaren kapitalaren aldakortasuna aztertu zuten kontabilitateko legeen ikuspegitik. Espainiako legeek kontabilitateko nazioarteko arauak onartu dituzte, batik bat, NIC 32 araua, eta harrezkero kooperatibaren kapitala pasiboa dela ulertu behar da eta ez kooperatibaren funtsak.

Kongresuaren bigarren egunean Enrique Gadea jaunak Estatuko Kooperatiben Legearen eta Kooperatiben euskal Legearen arteko konparaketa egin zuen bi legeetan bazkideen baja eta kapitalaren itzulketa aztertuz. Jarraian, Fernando Sacristán jaunak jorratu zituen etxebizitza-kooperatibetan bazkideak baja hartzen duenean sor daitezkeen ondorio guztiak, kooperatibaren edozein fasetan. Hirugarrenik, Francisco Javier Arrieta jaunak, kooperatibismoa lan-zuzenbidearen esparruarekin uztartzeko asmoz, elkarren arteko laguntza eta negozio juridikoa kontserbatzeko ideiak nabarmendu zituen; borondatezko bajak aztertu zituen, horien prozedura, baja justifikatua denik ala ez, eta bajaren ondorioak jorratu zituen. Hurrenik, Vega María Arnáez andereak lotu zituen atxikimendu askearen kooperatiba-printzipioa eta zerbitzu publikoen kudeaketan herritarrek parte har dezaten administrazio-printzipioa; modu horretara, herritarrek zeregin aktiboagoa hartu beharko dute zerbitzu

publikoak kudeatzeko, eta ez dira zerbitzu-hartzaile hutsak izan behar. Amaitzeko, Alberto Atxabal jaunak bazkidearen bajaren ondorioak jorratu zituen arauketa fiskalaren ikuspegitik. Bazkidea aldi berean pertsona fisikoa da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari begira, eta zergaduna kapitalaren ekarpenak itzultzen zaizkionean Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari begira.

Zuzenbide Fakultateko Dekanoak, Gema Tomás Martínez andereak, amaiera eman zion Kongresuari. Gizarte Ekonomiaren garrantzia gero eta handiagoa dela azpimarratu zuen, eta horren barruan, kooperatiben eginkizuna goraipatu eta helburu horretarako Unibertsitatearen zeregina nabarmendu zuen.